

NOLA SABIN'I...?

Bigun deika dago gaur Oldertiari
Olañgi zurbildun nere adimena...;
Beren magalían Sabin aundiari
Egin nai lioke abes goitiena.

Deika dago, bai; maitari, bigun,
Itzal itunak nola argiari.
—«Ene maitiak: ¿Nun zerate, nun,
Erantzun gabe nere deyari?»

Ez dakuzute ba, gelgañi jeikitzen
Arana'tar Sabin gure euzko luñian,
Nola negu beltzan inoiz dan jayotzen
Lañosa edera baratza solian...?

Ez dakuzute Seme goitia
Ama txiroa ain afo aitortzen;
Bulaña sendo, goi bekokia,
Onen etsayai guda ematen?

Begitu... begitu... ta ikusi zazute
Zindotasunean ote dun berdiñik,
Eta inongo Amak inoiz izan duan
Bera bezelako Seme on maiterik.

Guda izkilitzat maitasuna-ta
Jeiki da sendo Aberi alde,
Anker bel-belta txit birindu-ta
Jopua gustiz azkatu arte.

Eta bere kaltez etsayak aneika
Oru amofatuz jeiki diran ahen,
Zut-zutik irauñ du, guzi oyen aurka,
Bizia emanaz bere Ama aldezten.

Ene Olderti maite neriak:
Zuek ixilik nola zaudete,
Zuen abesti eder goitiak
Sabin'i ezti opaldu gabe?

Nerea entzun da, eder dira jeiki,
Atsedentzen zeuden oe ioratsutik,
Eta mintzatuaz txit samur ta apalki
Gaur, oi ez duten lez jañ aurkeztu zaizkit:

«¿Sabin degula bear aintzatu...?
¿Zer da beretzat degun argia?
Goititz guzia beregan ba-du;
¿Zer da orentzat abes guria?»

Zer gera ba, gure lorezko jargoyan
Orentzat, bitxitxo txit zurbilak baño?
Edertasunean bai al-dago guban
Berak ez duanik ainbat ugarigo...?

¿Zer dira baita maitez zelayari
Oñlak jañten ditun loriak;
Eta zer dira egun-sentiyan
Uretxindoren abes eztiak...?

Da, maitasunean goiko malaraño
Sultu galendu zan biotz ain osoa,
Olerki geria da ba orentzako
Ertirik gabeko jañdun uts txiroa.

Orentatik gaur gaude gu ixilik...
Sabin aundiya goi degu ikusten...
¿Ta ez dakigu oñela, baizik
Bera ezilkoñ poz-pozik geltzen?

Sabin andijaren aintzaz

Eguzkija-ego aldian sartu zan, euzko erija lano beltz
pian soritxafan jaubetu zan.

Ludiko adimen arua dolorkeriz betiak azpi zapo batek
lez, atzipatu eban euzko efi maite au; benetan lo zofuan
egolako.

Eta bertoko aintza ta gentzak lufa jo eban, jopu egin
zan eta oraindiño diran, ezpañafenpian.

Ilun egon efi au, argitasun izpi gabe, eta itxubak, ar-
gija ez daki zer dan.

Egiz dagigu, euzko erija etzan bere buruaren jaube,
ez ekijan ba orain urte gitxi arte, bere zergaitija, españaf
atzein leyala zan, Sabin andijak diadar, gafatza mendi go-
yenetik egin eban arte.

Euzko-erija itxaftu zan, azkatasun eguzkija abestu
zan, eta azkatu zan, eguzki argija, eta itxubak bere begi
argijak zituzala ikusik, diadar egin eban:

Euzkadi, aberija da, azkatuko da. Sabin zan argija,
itur-burua, ibai zabala sortu eban, eta gaur nai ta autz
bigurtuta dagon bere gorpuba, nunbait dirau goguak,
entzuten eta ikusten, abesti alai ta maitakoñak jañtzen
daben usain estitsuba, ama batek bere kutunai dopatson
lastan osua baño, gozatzuago.


Sabin, nork ukatzen dau, irakasle onen ixena, aberi
onetan? baña bijañ, laisteñ, ludiko erijen batzafa daitenian
etzagitez aitzu, ahen donokitik aita, lagundu guri ume
zurtz oni, eta geuk opalduko dautzugu ustai loresko bat,
polite, baña edera.

Sabin zan andija eta benetan olerkariya, aberijari opal-
du eutsozan bere adimen argijen bitartez biotzetiko mai-
tasun osoa, olerkijak, ain ederañ eta egokijak ze, aberijak
diraun artian, ixango dira eurok, agertuko dabenak nor
zan irakaslia.

Il zan gixona, egikixun gustijak beterik, eta onegaitik
baita be ixango da andija donokijan, nundik lagun egin-
go daukun gaiskatzen geure aberi maitea.

TAKILO.

Ea'n.



Sabin'en eskubaren irudija, Bilbao'ko «Centro Vasco»'n jaboten dana,